

## **MUTILOAKO UDALA 2020KO URRIAREN 28KO EZOHIKO BILKURA**

**LEKUA:** Mutiloako Udaletxeko Batzar Aretoa

**DATA:** Bi Mila eta hogeiko urriaren hogeita zortzian.

**ALKATE-LEHENDAKARIA:** Iñaki Ugalde Alustiza.

### **BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:**

Asier Aguirre Murguiondo.

Jule Aranburu Mariaezkurrena

Erkuden Aguirre Arruabarrena.

Aitor de Astobiza Uriarte.

Miren Arantza Oiarbide Perez.

### **EZ BERTARATUTAKOAK:**

Iñaki Zabalo Echezarreta.

### **IDAZKARIA:**

Martin Iparragirre Mujika.

**BATZARRA:** Ez Ohikoa

**DEIALDIA:** Lehenengoa

**HASIERA ORDUA:** Arratsaldeko 19:45etan

**HAMAIERA ORDUA:** Arratsaldeko 20:30etan.


### **LEHENENGO PUNTUA:**

**SEGURA eta ZERAIN-MUTILOA-ZALDUONDO UDAL ELKARTEKO IDAZKARI LANPOSTUAK HORNITZEKO OINARRIAK DIRELA ETA, EPAI-MAHAIKIDEEN OSAKETA ALDATZEKO PROPOSAMENA ONARTZEA.**

Adierazi da, prozesua abian jarri ondoren, ikusi ahal izan dela zailtasunak daudela oinarrietan jasotako epai-mahaia osatzeko, eta Gipuzkoako Gobernantza saileko teknikariaren iritziaren arabera, honako aldaketa egitea proposatzen dela:

**6. OINARRIAREN LEHENENGO ATALA ALDATZEN DA**

**TESTU ZAHARRA:**



## **MUTILOA** 1. Epaimahai kalifikatzailea honela osatuko da:

### Epaimahaiburua:

— Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernantza Departamentuko teknikari bat; eta haren ordezkoa.

### Epaimahaikideak:

— Administrazio Orokorreko Teknikari bat, eta haren ordezkoa.

— Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (HAEE) teknikari bat eta haren ordezkoa.

— Gaikuntza nazionaleko Toki Administrazioiko funtzionarioen eskalako funtzionario bat; eta haren ordezkoa.

— Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko beste ordezkari bat izendatuko da, euskara probak neurtzeko.

### Idazkaria:

— Segurako Udaleko karrerako funtzionario bat eta haren ordezkoa.

Epaimahaia osatzeko garaian, inpartzialtasunaren, espezialitatearen eta profesionaltasunaren printzipioak bete daitezzen zainduko da; eta, era berean, gizonezko eta emakumezkoen arteko parekotasuna bilatuko da.

Epaimahaia aholkularien edo enpresa adituen laguntza eskatu ahal izango du egoki ikusten dituen ariketetarako; eta horiek beren espezialitate teknikoetan laguntza ematera mugatuko dira."

## **TESTU BERRIA:**

### 1. Epaimahai kalifikatzailea honela osatuko da:

#### Epaimahaiburua:

— Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernantza Departamentuko teknikari bat; eta haren ordezkoa.

#### Epaimahaikideak:


— Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko teknikari bat; eta haren ordezkoa.

— Gaikuntza nazionaleko Toki Administrazioiko funtzionarioen eskalako 2 funtzionario.

#### Idazkaria:

— Segurako Udaleko karrerako funtzionario bat; eta haren ordezkoa.

Epaimahaia osatzeko garaian, inpartzialtasunaren, espezialitatearen eta profesionaltasunaren printzipioak bete daitezzen zainduko da; eta, era berean, gizonezko eta emakumezkoen arteko parekotasuna bilatuko da.



## **MUTILOA UDALA**

Epaimahaiak aholkularien edo enpresa adituen laguntza eskatu ahal izango du egoki ikusten dituen ariketetarako; eta horiek beren espezialitate teknikoetan laguntza ematera mugatuko dira.”

Hori dena kontuan hartuta, eta gaia aztertu ondoren, Udal Osoko Bilkurak aho batez, honako hau,

### **ERABAKI DU:**

#### **LEHENENGOA:**

Proposatutako aldaketa onartzea; onartutako erabakiaren arabera honela osatuko da epai mahai kalifikatzailea:

Epaimahaiburua:

— Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernantza Departamentuko teknikari bat; eta haren ordezkoa.

Epaimahaikideak:

— Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko teknikari bat; eta haren ordezkoa.

— Gaikuntza nazionalako Toki Administrazioako funtzionarioen eskalako 2 funtzionario.

Idazkaria:


— Segurako Udaleko karrerako funtzionario bat; eta haren ordezkoa.

Epaimahaia osatzeko garaian, inpartzialtasunaren, espezialitatearen eta profesionaltasunaren printzipioak bete daitezen zainduko da; eta, era berean, gizonezko eta emakumezkoen arteko parekotasuna bilatuko da.

Epaimahaiak aholkularien edo enpresa adituen laguntza eskatu ahal izango du egoki ikusten dituen ariketetarako; eta horiek beren espezialitate teknikoetan laguntza ematera mugatuko dira.”

#### **BIGARRENA:**

Erabaki hau Segurako Udalari jakinaraztea.



## MUTILOA UDALA

### **BIGARREN PUNTUA: ERROTATXO ERREFORMAREN BIGARREN FASEKO LIZITAZIOAREN ESLEIPENA ONARTZEKO PROPOSAMENA ETA HORREN INGURUKO GAINERAKO ESLEIPENAK.**

Egindako prozedurari buruzko informazioa eman da:

2020ko irailaren 15eko bileran honako erabakiak onartu ziren:

ENPRESA	ONARTUA
GOITU ERAIKUNTZAK S.L.	BAI
IPARRAGIRRE ERAIKUNTZA LANAK S.L.	BAI
INDENORT PV, S.L.VU	BAI
APLIBUR CONSTRUCCIONES	EZ (GARANTI EPEA SARTU DU 1 KARTAZALEAN)

Aho batez hartutako erabakiak:

Aplibur Construcciones enpresak aurkeztutako eskaintza ez onartzea, zeren eta egindako akatsa Kontratu Publikoaren Legeko 139. Artikuluan xedatutakoaren aurka doa, eta erabaki honen berri ematea interesatuari.

Kartazalean balorazio teknikoari lotuta dagoen dokumentazioa zerbitzu teknikoei bidaltzea, dagozkion balorazioak egiteko.

### **2020KO IRAILAREN 24AN EKITALDI PUBLIKOA EGIN ZEN 2 ZENBAKIDUN KARTAZALAK IREKITZEKO:**

2 ZENBAKIDUN KARTAZALAK IREKI AURRETIK EMAN ZEN 1  
GUTUNAZALETAKO BALORAZIOA (TXOSTEN TEKNIKOA ATXIKITZEN  
DA):



## MUTILOA UDALA

ENPRESA	BALORAZIOA GUZTIRA
GOITU ERAIKUNTZAK S.L.	12 PUNTU
IPARRAGIRRE ERAIKUNTZA LANAK S.L.	3 PUNTU
INDENORT PV, S.L.VU	12 PUNTU

Segidan 2 zenbakidun kartazalak ireki ziren:

"2" GUTUNAZALETAKO PREZIOAK BEZ BARNE:

ENPRESA	PREZIOA/PUNTUAK
GOITU ERAIKUNTZAK S.L.	301.249,88/ <b>65</b> <b>PUNTU</b>
IPARRAGIRRE ERAIKUNTZA LANAK S.L.	336.869,62/ <b>58,12</b> <b>PUNTU</b>
INDENORT PV, S.L.VU	309.218,15/ <b>63,32</b> <b>PUNTU</b>

"2" GUTUNAZALETAKO GARANTI-EPEAK: DENEK 5 URTE (10 PUNTU BAKOITZAK).


### GUZTIRA PUNTUAK:

ENPRESA	PREZIOA/PUNTUAK
GOITU ERAIKUNTZAK S.L.	<b>12+65+10= 87</b> <b>PUNTU</b>
IPARRAGIRRE ERAIKUNTZA LANAK S.L.	<b>3+58,12+10=</b> <b>71,12PUNTU</b>
INDENORT PV, S.L.VU	<b>12+63,32+10=</b> <b>85,32 PUNTU</b>

Aho batez onartu zen proposamena:

Obrak Goitu eraikuntzak S.L. enpresari esleitzea.

Bestalde, alkate jaunak adierazi du baieztatu dela Madrileko diru laguntza, beraz ez dagoela inongo arazorik esleipenaren jarraitzeko.



## **MUTILOA UDALA**

Hori dena kontuan hartuta, eta gaia aztertu ondoren, Udal Osoko Bilkurak aho batez, honako hau,

### **ERABAKI DU:**

#### **LEHENENGOA:**

**"ERROTATXO ERREFORMAREN BIGARREN FASEKO"** obrak "Goitu Eraikuntzak S.L." enpresari esleitzea 301.249,88 eurotan (BEZ eta gastu guztiak barne) eta 5 urteko garanti epea ezarriz, azpimarratuz esleipendunari kontratua administrazio-agiri gisa formalizatzeko errekerituko zaiola, alkate jaunari ahalmena emanaz esleipen honi buruzko edozein dokumentu publiko nahiz pribatua sinatzeko.

#### **BIGARREN PUNTUAREN JARRAIPENA: ERROTATXO ERREFORMAREN BIGARREN FASEKO OBREN INGURUKO GAINERAKO ESLEIPENAK.**

Errotatxo erreformaren bigarren faseko obrak direla eta, Udal Osoko Bilkurak aho batez, honako hau,

### **ERABAKI DU:**

#### **BAKARRA:**

Gainerako esleipenak onartzea, era honetan:

**KONTRATUAREN XEDEA:** Proiektuaren ondare aholkularitza.


**HIRUGARRENA:** Ondartez S.L.

**AURREKONTUAREN PREZIOA:** 4.840 euro (BEZ barne)

**AURREKONTUAREN ERREFERENTZIA:** 2020-10-26

**2020KO AURREKONTUAN KREDITUA:** Bai, 1.0000.643.432.00.01 partidan.

**KONTRATU TXIKIA:** Bai, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 118.1 Artikuluan xedatutakoaren arabera.



## MUTILOA UDALA

**KONTRATUAREN XEDEA:** Obra zuzendaritza-arkitekto lansariak.

**HIRUGARRENA:** Wolfgang Berger.

**AURREKONTUAREN PREZIOA:** 15.000,00 euro (BEZ aparte)

**AURREKONTUAREN ERREFERENTZIA:** 2020ko urria.

**2020KO AURREKONTUAN KREDITUA:** Bai, 1.0000.643.432.00.01 partidan.

**KONTRATU TXIKIA:** Bai, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 118.1 Artikuluan xedatutakoaren arabera.

**KONTRATUAREN XEDEA:** Osasun eta Seguridade Koordinazio Lanak.

**HIRUGARRENA:** Koorditek enpresa.

**AURREKONTUAREN PREZIOA:** 340,00 euro hileko (BEZ aparte) eta 4 hilabeteko iraupena aurreikusten da.

**AURREKONTUAREN ERREFERENTZIA:** 2020-10-27.


**2020KO AURREKONTUAN KREDITUA:** Bai, 1.0000.643.432.00.01 partidan:

**KONTRATU TXIKIA:** Bai, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 118.1 Artikuluan xedatutakoaren arabera.

### **HIRUGARREN PUNTUA:**

#### **2021 EKITALDIRAKO ORDENANTZA FISKALAK ALDATZEKO ESPEDIENTEA ONARTZEA.**

Ondoren 2021eko ekitaldiari begira, Ordenantza fiskalen tarifen aldaketen akordioaren proposamenaren berri ematen da, halaber, Idazkari-Kontuhartzailearen txostena ere. Aurkeztu den espedientearen arabera, orokorrean ez dira aldatzen prezioak, zabor bilketaren tasarena izan ezik (kasu honetan prezioak egokitzen dira Sasietak 2021. Urterako aplikatuko duen gehikuntzara), bestalde aprobetxatzen da espedientea eraikuntza zergan aldaketa txiki bat sartzeko praktikan erreteila lanetarako aplikatzen den salbuespena eraikuntza zerga ordenantzan jasotzeko, eta azkenik bide publikoak erabiltzeko fidantzaren gaia erregularizatzen da, eta bide publikoa erabiltzeko baimen bakoitzeko 3.000,00 euroko fidantza ezartzen da.



## **MUTILOA UDALA**

Hori dena kontuan hartuta, eta gaia aztertu ondoren, Udal Osoko Bilkurak aho batez, honako hau,

### **ERABAKI DU:**

#### **BAKARRA:**

Ondoko Zerga, Tasen kuotak aldatu, 2021 urterako, honako hauek direlarik:

Aipatutako akordioak eta izapidetutako espedientea informazio publikoan arauzko eran jendaurrean jartzea, eta informazio honen epea amaitu ondoren, kexarik edo oharrik izan gabe, hartutako erabakiak behin betikoak izango dira akordio berrien beharrik gabe.

#### **LAUGARREN PUNTUA:**

### **3000,00 EUROTİK GORAGOKO FAKTUREN ONARPENA**

Ondoren adierazitako faktura hau aho-batez onartu da:

1	P3RSEUS CIBERSEGURIDAD S.L.	3.091,74 euro (BEZ barne)
---	-----------------------------	---------------------------

### **GALDE-ERREGUAK**

Ez daude.

Eztabaidatzeko gai gehiago ez dagoenez, Bilkura amaitutzat ematen da arratsaldeko 20:30ak direnean eta horren fede, nik idazkariak ematen dut.